

## 'Zapaldu marra' antzezlan

Gaur 22:30ean  
Gurea aretoan ▶ 4



# Euskara ofiziala izatea eskatuko dute Leitzan

**NAFARROA** ▶ Nafarroa osorako ofizialtasuna eskatuko dute gaur iluntzean plazan

**DEIA** ▶ Euskara Batzordeak eta Oinarriak dira elkarretaratzearen deitzaileak ▶ 7



## Gazteentzako programazio berria aurkeztu dute

**TOLOSA** ▶ Udal Gazteria departamenduak gazteentzako programazio berria aurkeztu zuen atzo. Maiatza bitarte DJ eta funky ikastaroak Kultur Etxean —otsailaren 25etik aurrera ostiralero arratsaldeetan—, Donostiara zinemara irteera —otsailaren 19an— eta *Zapaldu marra* antzezlan —maiatzaren 20an— izan-

go dira. Bestalde, *Hi gazte!* gazteentzako aldizkarian aldaketa batzuk iragarri dituzte martxotik aurrera: formatu berria, eduki aldetik zabalagoa eta osatuagoa, atal berriak... Argazkian, Nerea Cereceda gazteria teknikaria ezkerrean, eta Itxaropena Urkiola zinegotzia eskuinean. LEIRE MONTES ▶ 2

**ALEGIA** ▶

## Familiari buruzko hitzaldiak eratu dituzte

Astelehenetik aurrera izango dira Kultur Etxean ▶ 5

**VILLABONA** ▶



A.ETXANIZ

## Eneko Gorostidiri ongietorria egin diote

Herenegun gauean iritsi zen herrira Aranjuezetik ▶ 4

**LEABURU** ▶

## Presoen alde eta AHTren kontrako mozioak

Udalbatzarrean onartu dituzte ▶ 6

GAZTERIA ▶

# Aspertzeko astirik ez izateko

Gazteentzako programazio berria aurkeztu du Udal Gazteria departamenduak; maiatza bitarte, DJ eta funky ikastaroak, irteera eta antzerkia izango dira



Gazte Topagunean, DJ baten azalpeni adi; gazteek hala eskatuta, DJ ikastaroa eskainiko dute orain. HITZA

## LEIRE MONTES

Hemendik aurrera ere, gazteek izango dute zer aukeratu. Udaleko Gazteria zinegotzi Itxaropena Urkiolak eta Nerea Cereceda Gazteria departamenduko teknikariak maiatza bitartean gazteentzako antolatutako eskaintzen berri eman zuten atzo, prentsaurrean. Besteak beste, ikastaroak, irteera eta antzerkia jasotzen dituzte programazioak.

**Ikastaroak.** Bi antolatu dituzte Udaleko Gazteria departamenduak eta Gaztegunek: DJ ikastaroa eta Funky ikastaroa. Hilaren 25ean hasiko dira biak, eta maiatzaren 20ra arte, Aste Santuko asteburua kenduta, ostiral arratsaldero emango dira es-

kolak, Kultur Etxean. 13 urte gorakoei daude zuzenduta: DJ ikastaroak 50 euroko prezioa du, eta Funky ikastaroak 30 euro balio du. Astelehenean, hilaren 14an, zabalduko dute izen-emate epea, eta 18an, ostirala, amaituko da. Interesa duenak Kultur Etxean jaso ditzake informazioa eta eskaera orriak; bertan, Gazte Informazio bulegoan, utzi behar dira, datuak beteta. Gazteria arloko ordezkariak itxaropentsu agertu ziren atzo; haien iritzi, gazteen eskariei erantzuten baitute ikastaroek: «Gazteen nahiak hartu ditugu kontuan ikastaroak antolatzerako unean, horrelakoak askotan proposatu izan dizkigute. Horregatik, arrakastatsuak izango direla uste dugu».

**Irteera.** Topaguneak izan duen «harrera paregabearekin oso pozik» agertu ziren ere Urkiola eta Cereceda: «Erreferente bihurtu da, eta asteburuko gazte as-ko elkartzan da Kultur Etxean. Askotan txiki geratzen zaigu aretoa». Ekintza berezi moduan, Topaguneko hezitzaileek irteera antolatu dute datorren larunbaterako, hilaren 19a. Gazteek eskatutako irteera da, eta Donostiara joango dira, zinemara; 15:30ean aterako dira, Kultur Etxetik.

**'Hi, gazte!' aldizkaria.** Martxotik aurrera, zenbait berrikuntzarekin iritsiko da *Hi, gazte!* gazteentzako aldizkaria. Alde batetik, formatua aldatu egingo dute. Baina, batez ere, eduki aldetik izango da zabalagoa

## 'HI, GAZTE!'

Martxotik aurrera formatu berria izango du aldizkariak, eta eduki aldetik zabalagoa eta osatuagoa izango da

eta osatuagoa. «Adin tartea zabaldu egin nahi genuen, horrela gazte gehiagori iritsi ahal izateko; egun, gehienbat nerabeei dago zuzenduta aldizkariaren edukia, baina 20-25 urte bitartekoentzat ere izatea nahi dugu». Orain arteko ildoari jarraituz, gazteei interesatzen zaizkien gaiak jorratuko ditu *Hi, gazte!* aldizkariak: aurkibidea, Gazte Gunearen inguruko informazioa, kontaktuen saila, Topagunearen inguruko berriak, inkesta, moda, sexua, psikologoaren atala, literatur txokoa, disko eta liburu arrakastatsuenak eta lehiaketak eta sari-emateak jasoko ditu, besteak beste.

**'Zapaldu marra' antzezlana.** Maiatzaren 20an, ostirala, eskainiko du Pikor teatro taldeak *Zapaldu marra* antzezlana, euskaraz. «14 eta 95 urte bitarteko gazteei» dago zuzenduta ikuskizuna. Drogen arazoa jorratzen du, esketx bidez eta modu zuzen eta dibertigarri batean. Hausnarketa egitera bultzatzen ditu gazteak, eta horregatik lana oso egokia dela iruditzen zaigu», azaldu dute Udal ordezkariak. «Gaiaren garrantzia ikusita», ikastetxei antzezlana ikusteko aukera ematea pentsatu dute. Hortaz, bi saio izango dira: goizekora herriko ikastetxeetako gazteak (DBH eta Batxilergoa) joango dira; eta arratsaldeko ikuskizunera, berriz, edonor joan ahal izango da.

ZOZKETA ▶

## Bai Euskarari zozketaren zenbaki sarituak

Tolosaldean Bai Euskarari Ziurtagiria duten saltokiek, enpresek eta era guztietao entitateek beren kideei eta bezeroei leialtasuna eskertzeko zozketa egin berri dute. Dagoeneko jakinak dira zenbaki sarituak: 08.753 zenbakidunak Tolosako Orue erretegiaren 4 laguntzako afaria irabazi du; Ibarro Eugenio harategian banatu da zenbaki hori. Bestalde, Tolosako Aralar Kirolak dendan banatutako 19.545 zenbakia duenak Tolosako Amets jatetxean 4 laguntzako afaria izango du sari.

HEZKUNTZA ▶

## Zikloetako azterketa prestaketzeko

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak zikloetako azterketa prestaketa ikastaroa antolatu du langileentzat. Hobetuz-en eta Europako Fondo Sozialaren diru laguntza du ikastaroak, eta doakoa da. Hilaren 17an hasiko dira eskolak, eta astelehenetik ostegunera emango dira, 18:00etatik 21:00etara. Izena emateko ikastetxera jo behar da (943 65 11 47).

HEZKUNTZA ▶

## 'Heziketa XXI. mendean', Orixe institutuan

Orixe institutuak *Heziketa XXI. mendean* izeneko hitzaldia antolatu du, DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoentzat. Maribel San Sebastian psikologoak eskainiko du. Astelehenean mintzatuko da, hilaren 14an, 18:30ean, ikastetxeko 1. zikloko liburutegian.

hitza **txokoa** lagun

ZUK ERE  
lagun dezakezu HITZA

**943 30 43 46**

(goizeko 8:30etik gaueko 20:30era)

Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'CLOSER' filmerako 2 sarrerentzako irabazlea:

**ARANTXA UGARTEMENDIA AGIRRE** HITZAren harpidedun laguntzaile billabonatarra.

Aspek antolatuta astelehenean hilak 14ean 16:30ean **Beotibarren** jokatu diren pilota partiduetarako bina sarrerentzako irabazleak diren harpidedun laguntzaileak:

- KEPA ERREZIL GAINZERAIN (Amezketak)
- NEKANE GUERRERO LASA (Alegia)
- MARIA GARCIA ZUBINA (Ibarra)

CAPELLAN - NALDA III.a / CHAFEE - EULATE

**GONZALEZ - LASA III.a**  
**DEL REY - PASCUAL**

BERRAONDO-ZUBIETA / BALEZTENA-URBERUAGA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ATLETISMOA ▶

# Emaitza onak lortu dituzte Tolosa CFkoek

Euskadiko Txapelketa Nagusian zortzi domina lortu dituzte berriki: urrezko bi

**IRATXE ETXEBESTE**

Tolosa CFko atletak azken urteetako emaitzarik onenetakoak lortu dituzte berriki, Euskadiko Atletismoko Pista Estaliko Txapelketa Nagusian. Guztira, zortzi domina ekarri dituzte etxera: urrezko bi, zilarrezko lau eta brontzezko bi.

400 metroko proban, emakumezkoetan, Tolosa CFko hiru ordezkariak finalera sailkatzea lortu zuten. Finalerdietan bikain aritu ziren Eva Zulaika, Amaia Jauregi eta Amaia Seguro. Hala, lehenengo finalerdian erraztasunez hartu zuten mendean Zulaikak lasterketa, eta ez zuten arazorik izan finalera sailkatzeko. Seguroa sailkatu zen bere atzetik, eta egindako denboragatik (1.02.76) fina-

lerako ere sailkatu zen, bere markatik gertu. Bigarren finalerdian, Amaia Jauregik oso lasterketa ona egin zuen eta 1.00.70 denborarekin, finalerako sailkatzea, bere marka 51 ehunenetan hobetzea eta Espainiako Txapelketa parte hartzeko txartela lortu zuen.

Hurrengo egunean izan zen final handia. Ohi bezala, azkar irten zuen Zulaikak, eta buru izan zen lasterketa osoan. Ehun metro faltan, bazirudien erraz irabaziko zuela, baina atzetik Jauregi azaldu, eta harrapatu egin zuen ia. Lehenengo eta bigarren izan ziren, 1.00.19 eta 1.00.25 denborarekin. Zulaikarentzat denboraldiko markarik onena izan da, eta hobetuz doa, gainera, lasterketak aurrera doazen heinean. Jauregik



Atletismoko Pista Estaliko Euskadiko Txapelketan jardundako Tolosa CFko ordezkariak, proba ezberdinetan lortutako dominekin. HITZA

berriro ondu du marka, eta junior mailako Espainiako Txapelketa lehiazteko aukera izango du berriz ere, baina oraingoan aire librean jardun beharko du. Finalerako beste Tolosako ordezkaria, Seguroa, bosgarren sailkatu zen.

Proba konbinatueta ere aipatzeko modukoak dira Tolosa CFko atleten emaitzak. Kategoriaz guztietako kirolariek hartu zuten parte, eta nagusietan, bi ordezkariak, Iban Gallegok eta Ibai Agirrek, lehenengo bi postuak lortu zituzten: urrea eta zilarra, hurrenez hurren. Junior mailan, berriz, Mikel Munarrirek zilarrezko domina eskuratu zuen eta jubeniletan, Asier Aierzak brontzezkoa.

1.500 metroan, Ohiane Vazquez azpitxapeladun izan zen 5.11 denborarekin; bere markatik gertu eta oso bukaera ona egin. Lasterketa berean hirugarren sailkatu zen Leire Agirrezabala, eta zilarrezko domina lortzeaz gain, bere marka bigarrena ere hobetu zuen.

Jaurtiketa luzeko Gipuzkoako Txapelketa, berriz, Ion Ormazabalek zilarrezko domina ere lortu zuen. Jabalina jaurtiketan ondo aritu zen Tolosa CFkoa, eta orain arte pisu jaurtiketan burubelari dabilela kontuan hartuta, emaitza eta marka onak lortu dituela esan beharra dago. 44 metroko jaurtiketa egin

**400 METRO NESKAK**

Eva Zulaikak irabazi zuen; Amaia Jauregi izan zen bigarren eta Amaia Seguroa, berriz, bosgarren sailkatu zen

zuen Ormazabalek. Bestalde, Jose Luis Gonzalez (jabalina eta diskoa) eta Antonio Sobrino (jabalina) beteranoeak ere hartu zuten parte proban.

**Krosean ere, bikain**

Krosari dagokionean, berriz, Arraten (Eibar) izandako Gipuzkoako Txapelketan azpitxapeladun izan zen Asier Landa junior mailan. Oso ondo aritu zen korrikalari gaztea, eta orain arte daraman progresio bikainari jarraipena eman zion, hala. Jubenil mailan, zazpigarren postua lortu zuen Iker Albisuk, eta beteranoetan Gipuzkoako txapeladun gelditu zen Izaskun Zubeldia. Nagusien mailan parte hartu zuen, halaber, Lander Egiak.

«Emaitza oparoak eman dizkigute gure atletak azken egunetan, eta aurrerantzean ere hala izango delakoan gaude», esan dute Tolosa CFko ordezkariak, harro.

**GUTUN@K** ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## Estatu eta multinazionalen Europa neoliberalaren kontra: Ez

Europar Batasuneko herritarrok ez dugu inolako aukerarik izan itun konstituzionalean parte hartzeko. Estatuetako gobernuak aukeratutako pertsonak idatzi dute testua eta horixe da inposatu nahi dugutena. Eta informazio falta ere ez da kasualitatea, oinarritzko eskubideetan atzerapauso handia ekarriko duela ezkutatu nahi dutelako.

Telebistako iragarkien hitz polit horien atzean, testuak lan eskubidearen ordez, «lan egiteko eskubidea» dakar; enplegu osoaren ordez, «enplegu maila altua»; etxebizitza duina erabiltzeko eskubidea «etxebizitza laguntzetara» mugatzen du; oinarritzko errentarako eskubidea «laguntza sozial batera» murrizten du; zerbitzu publikoak «interes ekonomiko orokorreko zerbitzu» bihurtu eta pribatizazioaren esku uzten ditu.

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna «bultzatzeko helburutzat» hartzen du, eta ez eskubidetzat, beraz, estatuak ez daude hori errespetatzera beharturik. Genero indarkeria aipatu ere ez da egiten.

«Estatuen lurralde osotasuna bermatuko du», hau da, autodeterminazio eskubidea guztiz ukatzen du. Ofizialak ez diren hizkuntzen erabilera bermatzeko neurri legal bat ere ez du ezartzen.

Etorkinei ateak guztiz itxi eta NATOren strategiaren menpeko potentzia militar bihurtu nahi du Europa.

Europako Estatuak eta multinazionalen arteko aliantzaz eraikitako Europa da. Politika ekonomikoa, merkantzien, kapitalen eta zerbitzuen zirkulazio askea, merkatuak agintzen du, eta dena babes sozialaren eta kalitateko zerbitzu publikoen kontura.

-Herrien Europa soziala eraikitzeko. Zure botoa: Ez.

-Giza eskubideak, eskubide sozialak, kulturalak eta linguistikoak defendatzeko dituen Europar eraikitzeko. Zure botoa: EZ

-Oinarritzko eskubideak

—babes soziala, lan duina, osasuna, hezkuntza, etxebizitza...— bermatuko dituen konstituzio-prozesuaren alde. Zure botoa: Ez.

-Partaidetzako demokrazia, ondasunen banaketa justua, ingurumena eta garapen ekonomiko eredu soziala helburu izango dituen konstituzio-proiektuaren alde. Zure botoa: Ez.

-Emakumeen eta gizonen eskubide eta aukera berdintasuna bermatuko duen konstituzio-proiektuaren alde. Zure botoa: Ez.

-Herriek euren etorkizuna erabakitzeko eskubidea daukatela aitortuko duen konstituzioaren alde, inork eskua sartu barik autodeterminazioerako eskubidea izan dezagun. Zure botoa: Ez

MARI MUJICA ▶ EEZKOAREN ALDEKO TOLOSako PLATAFORMAREN IZENEAN

## Euskaltzaleok Europako itunari: Ez

Euskal Herria, historiaurretik

hona, bere lurraldean kokaturik dagoen komunitatea da. Artikulazio eta marko politiko guztien gainetik, euskaldunak Europako herritarrak gara. Euskararen Herria bertakoa da; Europako azken herri indigena da. Euskaldun gehienok europarrak izan eta sentitzen garena uste dugu. Nola ez sentitu europar baldintza horiek dituen herri bateko kideak izanda?

Ikerketek garbi utzi dute historiaurretik euskara hitz egiten zela Pirinioetako bi aldeotan, eta hizkuntza indoeuroparrak iritsi aurretik ere, hemen euskaraz ari ginela gauza jakina da. Gure herria eta gure hizkuntza Europako historiaurretik heldu zaizkigun lekuko bi-ziak dira.

Hara paradoxa, ordea! Europako herririk eta hizkuntzarik zaharrenak ez du lekurik izango handikien artean sortzen ari diren Europa horretan. Denbora gehienez Europan hitz egiten den hizkuntza zokoratua izango da.

Euskaldunok ez dugu nazioordezkaritzarik izan gure interesak defendatzeko Itunaren sortze prozesuan, eta aurre-

rantzear ere, herrietako ordezkariarik izango ez denez, ez da modurik izango gure interesak (hizkuntza, kultura, ekonomia, politika, jendarteko eskubideak, nazio egituratzea ...) defendatzeko, estatuetako ordezkarien esku izango gara eta gero ere. Defentsa ederra izango du gure hizkuntzak aurrerantzean ere espainiar eta frantsesen eskutik!

Tristea da Europako lehen biztanleen ondorengoak izanik, ez esan beharra herri bezala eta euskal herritar bezala baztertzeko gaituen Itunari, Europako hizkuntzarik europarrena aintzat hartzen ez duela Itunak, bertako eta berezko hizkuntza ez delako inon presente izango, estatu osoko hizkuntza ofizialek duten berdintasunezko tratamendua ukatu egiten zaiolako. Ez dago bazterketa hau onartzerik, eta Europako europarrenok, hizkuntzarik zaharrenaren hiztunok ozen adierazi behar dugu EZ otsailaren 20an, euskaltzaletasun koherentek horixe eskatzen baitu.

INAKI AZALDEGI ▶ EEZKOAREN ALDEKO TOLOSako EKIMENAREN IZENEAN

VILLABONA ▶ KULTURA

# 'Zapaldu marra' antzezlan gaur gauean Gurea aretoan

Gazteek antzeztu eta gazteei zuzendutako obra 22:30ean hasiko da

IMANOL GARCIA

Pikor antzerki taldeak *Zapaldu marra* antzezlan eskainiko du gaur gauean Gurea aretoan, 22:30etik aurrera. «14 eta 95 urte bitarteko ikusle gazteei zuzendutako antzezlan» dela adierazten dute antzerki taldekoek.

Esketxen bitartez eta modu dibertigarri batean gazteen artean ohikoak diren egoerak antzeztzen dituzte: droga lehenengo aldiz probatzea, lagunartean presioa modako drogak kontsumitzerakoan edota araua haustearen eszizazioa eta beldurra.

Baina beste gai batzuk ere izango dituzte hizpide antzezlanean: drogak errealitatearen ihesbide gisa, gazteen ohituraren ezaugarri den kontsumo konpultsiboa, nahia eta etsipena, menpekotasuna, «eta zergatik ez, baita droga legal eta ilegalak bereizten dituen iruzurra», adierazten dute Pikor taldekoek *Zapaldu marra*-ren aurkezpenean.

Iraitz Lizarraga zizurkildarra, Esti Villa, Iñaki Rikarte eta Jon Elola gazteak dira antzezlaren, Miguel Olmedaren zuzendaritzapean. Testuen eta euskarazko itzulpenaren ardura duna Peru C. Saban izan da.

IRAITZ LIZARRAGA ▶ AKTOREA

## «Gure asmoa ez da irtenbiderik ematea, baizik eztabaida sortzea»

Iraitz Lizarraga zizurkildarrari txikitatik sartu zitzaion antzerkiarekiko grina. Orain, 25 urterekin, Pikor taldearekin ari da profesionalki *Zapaldu marra* antzezlaneanekin.

### Antzerki mundura sartzeko zer ibilbide egin duzu?

Eskolan aritu nintzen antzerkian eta gero Zizurkilgo antzerki tailerretan jarraitu nuen. Gero Gasteizera joan nintzen Historia ikastera eta han, azkenengo urtean pixka bat serioago hartzea erabaki nuen eta Arte Eszenikoan tailerretan sartu nintzen. Han lehenengo urtea egin eta gero Donostiako Arte Eszenikoan tailerretan jarraitu nuen beste hiru urte eginenez. Beste urtebete egin nuen antzerkia eta dantza Florentzian, Erasmus beka batekin joan nintzen.

### Eta ikasgeletatik nola egin zenuen salto antzokietara?

Bukatu nuen urte horretako udaran *casting* bat egin zuten Pikor taldekoek eta aukeratu egin ninduten. Gazte jendea eta ezezagunak bilatzen zituzten obra egiteko. Aukeraketa 2003ko udaran izan zen eta ordundik obra honekin nabil.

### Antzerki mundura sartzeko zer ibilbide egin duzu?

Zizurkilgo egin genuen aurreko urtean. Berezia izan zen, antzezlaren hasiera zelako, eta bestalde, ezagunen aurrean zelako. Orain, Villabonako emanaldirako lasaiago, lantugako daukagulako. Eta baita gogoarekin ere, jende ezaguna joango delako.

### Nondik ibili zarat?

Denetatik pixka bat. Euskal Herriatik ibili gara eta baita kanpoan ere: Madrilen, Kordoban, Valentzian, aste honetan Valladoliden...

### Zer nolako esperientzia?



I. GARCIA

Oso ona. Gainera eskolatik atera eta segituan antzezlaren batekin hastea izan da. Lanaz aparte, esperientzia pertsonala izan da.

### Zein da antzezlarekin eman nahi duzun mezua?

Obra sortu genuenetik ikutu morala albo batera utzi nahi genuen. Aurkezten duguna, drogak, eta ez bakarrik ilegalek, sortzen duten menpekotasunaren inguruan arazo bat dagoela da. *Norena da errua?* galderarekin hasten gara obra eta galdera horrekin amaitzen dugu. Gure asmoa ez da irtenbiderik ematea, baizik eztabaida sortzea. ◀

ADUNA ▶

## Hilaren 20an ezezkoa botoa emateko eskaera

Biharko Bilboko manifestazioara joateko deialdia egiten du herri ekimenak

I. GARCIA

Europako Konstituzioari Adunako ezezkoaren aldeko herri ekimenak deialdia egiten du bihar arratsaldeko 18:00etan Bilbon egingo den manifestaziora joateko eta baita ere hilaren 20an ezezko botoa emateko. Adunako Udalak ere bat egin zuen hilaren 1eko osoko bilkuran herri ekimenaren deialdiekin eta dei egiten die herritarrei hurrengo deialdietan parte hartzeko. Hain justu urtarilaren 30ean egingako konzentrazioan, herriko plazan 40 lagun inguru bildu ziren.

Herri ekimenak ezezkoaren botoa eskatzen du, besteak beste, «estaturik gabeko nazioak desagertu eta hiltzera kondenatzen dituelako eta ez duelako autodeterminazio eskubiderik onartzen».

ADUNA ▶

## Lehendabiziko mintegia gaur emango da KZgunean

I. GARCIA

Orain arte ordenagailua erabiltzen ikasteko ikastaroak eman izan dira KZ Gunean eta oraindik ikastaroak emango diren arren, mintegiak ere antolatuko dira. Mintegiak bi ordukoak izango dira eta horietan gai jakin bati buruzko klaseak emango dira. Lehendabizikoak gaur arratsaldean izango da. Alde batetik, segurtasuna jorratuko da: zer egin ordenagailuko informazioa inork ez ikusi ahal izateko, antibirusak... Bestalde Outlook programaren erabilera ikusiko da. Parte hartzeko nahikoa da KZgunera azaltzea eta zein mintegitan parte hartu nahi den esatea. Tutorea 16:00etatik 20:00etara egongo da.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

## Eneko Gorostidiri ongietorria egin zioten herenegun gauean

Gazte billabonatarrek ehun bat lagun zain zituen goizeko 2:30ak aldera iritsi zenean

I. GARCIA

Eneko Gorostidi billabonatarra bermepan aske utzi zuten herenegun arratsalde bukaeran Madrilgo Aranjuez espetxetik. Villabonan, 20:00etan bildu ziren dozenaka herrikide, ordu horretan iritsiko zelakoan Gorostidi, baina ordurako ez zuten oraindik askatu. Bildutakoek espetxearen jarrera zuten ahotan eta Eneko Gorostidi

«ahal den denbora gehiena barruan edukitzeko erabakia» izan dela azaldu zuten.

Azkenean, goizeko 2:30ak inguruan iritsi ziren eta ehun bat lagun zeuden zain herriko plazan, hotzari aurre eginez. Gorostidi bera harrিতa eta esker onez jaso zuen ordu horietan jende guzti horren ongietorria. Txalo zaparradarekin eta suzirikin jaso zuten eta gero bi dantzariak agurra dantzatu



Gorostidi bere argazkia kentzen Iratzar tabernan. A. ETXANIZ

zioten. Ondoren Iratzar tabernara abiatu ziren guztiak eta han Gorostidik bere argazkia kendu zuen.

Hilaren 19an, larunbata, egingo zaio omenaldia Eneko

Gorostidiri, 18:00etan, herriko plazan. Ondoren Sarasola sagardotegian afaria egingo dute. Txartelak salgai izango dira Iratzar tabernan sagardotegira joan nahi dutenentzat.

IKAZTEGIETA ▶

**Candanchura joateko azken izen-ematea gaur**

Gaur da Candanchura eskia-tzera joan nahi dutenentzat izen emateko azken eguna. Bidaia martxoaren 5ean eta 6an izango da. Helduek 24 euro eta 11 urte artekoek 21 euro ordaindu beharko dute, autobusa, afaria, aterpea eta gosaria prezioaren barne dirrelarik. Udalak antolatatu duen bidaira joateko Izen-ematea Ikaztegiatiko Udaltxean bertan egingo da

AMEZKETA ▶

**Zazpi Iturrik Lemoaren aurka jokatu du**

Zazpi Iturri pilota taldeak II. Berria Txapelketan ariko da gaur, final hamaseirenetako partidari. Amezketa taldearen kadeteak, jubenilak eta seniorrak Lemoaren aurka jokatu dute. Amezketa frontoian, gaueko 22:00etan. Norgehiagoka hau irabaziz gero, txapelketako final zortzirenetara pasako litzateke taldea eta martxoaren 5ean izango luke partida.

ALEGIA ▶

**Eskulan tailerra antolatu dute Kultur Etxean**

Alegiako Kultur Etxean eskulanak egiten ikasteko tailerra antolatu dute. Bertan izen-emateko aukera izango da, otsailaren 15a bitartean, Kultur Etxean bertan. Taldea mugatua izango da, 10 lagun ingurukoa. Martxoan hasi, eta maiatza bitarte, 22 ordu-tako iraupena izango du ikastaroak, orduetgia oraindik finkatzeke bada ere. Prezioa 36 eurokoa da.

ALEGIA ▶

**Euskal dantza ikastarorako izen-ematea zabalik**

Alegian euskal dantza ikastaroa antolatu da, otsailaren bukaeratik aurrera. Izen-ematea hil honen 18a baino lehen egin beharko da Ixkifia, Hilario-enea, Jubilatu-enea eta Etxeberria-enea tabernetan ezarri diren zerrendetan. Ikastaroa oinarrikoa izango da, dantzan ez dakiten gazteei zuzenduta. Helburu nagusia, beraz, ikastea izango da.

ALTZO ▶

**Eskolako gela bat umeentzako jolas-gune bihurtu dute**

Etxeko txikienentzako aukerak zabaldu eta liburutegiak bere funtzioak berreskura ditzan, Ertotzeko eskolako psikomotritzitate gela erabiltzen da umeentzako jolas-gune izateko, hilarren hasiera geroztik. Orain arte udal liburutegiak ludoteka zerbitzua egiten zuen, baina orain bere funtzioak berreskuratu ditu. Gelaren ordutegia 16:30etik 18:45era izango da.

ALEGIA ▶ HITZALDIAK

**Senitarteko liskarrak hizpide**

‘Elkarbizitza eta gatazkak familian’ hitzaldiak antolatu dira Kultur Etxean

NOELIA LATABURU

Alegiako Udalak hitzaldi zikloa antolatu du datozen asteetan zehar, *Elkarbizitza eta gatazkak familian* izenpean. Astelehen honetan hasi eta martxoa bitartean hiru hitzaldi emango ditu Amaia Agirre Muñoa hizlariak, Alegiako Kultur Etxeko batzar aretoan. Familiako gune barnean guraso eta haurren artean sor daitezkeen liskarren berri emango da bertan eta hauen aurrean har daitezkeen irtenbideak azaltzen saiatuko dira.

Lehendabiziko hitzaldia, *Berdinen arteko eraso eskolan*, astelehen honetan izango da, otsailak 14. Solasaldi honetan eskolan sortzen diren haurren berdinaren arteko erasoan ezaugarri nagusiak ezagutze-

ko aukera emango du Amaia Agirrek. Bide batez, gertaera hauek erasotzaile, biktima eta ikusleengan izandako ondorioak aztertuko dira. Halaber, eraso egoera hauek aurreikus-teko baliabideak proposatuko dira eta familiaren barruan eman daitezkeen erantzunak eta irtenbideak jasoko ditu hitzaldiak.

Astebete beranduago, otsailaren 21ean hain zuzen ere, Kultur Etxeko batzar aretoak bigarren hitzaldia jasoko du. Honetan, *Familiaren gatazkak modu eraikitze baterako konponbideak* izango ditu hizpide Agirre hizlariak. Familiaren barruan gatazkari aurre egiteko gizarateak dituen estilo ezberdinak aztertuko dira. Alde bategatik, aipaturiko estilo hauen abantailak eta eragozpenak

izango dira aztergai; bestalde, modu eraikitze eta lankide baterako beharko liratekeen tresnarik garrantzitsuenen berri emango da.

**Azkena, martxoan**

Hirugarren eta azken hitzaldia *Gurasoentzako disziplina positiboa* izenpean antolatu du Alegiako Udalak eta bi aste beranduago izango da, hau da, martxoaren 7an. Izenburuak ondo dioen bezala, disziplina positiboari buruz hitz egingo dute. Gai honen ezaugarri nagusiak ezagutuz eta aztertuz, zigorrak familiaren gunean duen eraginkortasuna ere azalduko dute. Bestalde, gaztetxoenganaiko disziplina positibo baterako abiapuntuak jorratuko dira euren norberako araupeztza bultzatu eta areagotu helburuz..

Hitzaldi hauek guztiak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira eta bi ordu-tako iraupena izango du bakoitzak, gutxi gora behera. Antolatzaileen helburua arazo eta gatazka hauen berri ematea da eta, batik bat, konponbide bat ematen laguntzea. Solasaldiak irekiak daude bertaratutako nahi duen guztientzat. Parte-hartze handia espero dute, izan ere gaiak eguneroko bizimoduaren topatu daitezkeen arazoaren gainean dihardu.



**Txindokira egunero igo zen 300 aldiz jarraian**

**ALEGIA ▶** Iñaki Beai Arteaga, 37 urteko gazte alegiarra (argazkian Perdido mendian) langabezia geratu zen 2003. urtean. Hurrengo egunean Txindoki mendira igo zen arazoa ahazteko helburuz. Bere gorputzak ondo erantzun ziola eta, erronka proposatu zion bere buruari: 300 egun jarraian Txindokirako joan-etorria egitea, hain zuzen ere. Proposatutako bai eta bete ere. 10 hilabete iraun zuen bere abentura partikularrak. 2003. urteko irailaren 13an igo zituen mendiko malda latzak lehen aldiz eta 2004. urteko uztailaren 31n egin zuen azken aldiz. azaltzen da. Borondatea behintzat ez zaio falta alegiar honi! HITZA

**HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA**  
Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu Zatoz zurearen bila!  
TOLOSA • LEITZA

- **Hizkuntzak:**
  - ★Arabiera ★ Erdera (atzeritarrentzat) ★ Italiara
  - ★ Euskera ★ Frantsesa ★ Itzulpenak
  - Maila guztiak, irakasle natibo eta kualifikatuak
- **Lehen hezkuntzatik batxilergora bitarteko ikastaroak:**
  - ★ Mate ★ Fisika ★ Kimika ★ eta abar
  - Goiz, arratsalde eta larunbatetan

**Pausoka Akademia**  
M.J Iraola, 2 behea • TOLOSA • mug.: 686971962 • Tel.: 943672448



LEABURU ▶ GIZARTEA

# Presoen protestekin bat eginik eta AHTren aurka ageri da Udala

Presoen itxialdiarekin bat egiten dutela eta AHTren aurkako ekimenen alde egingo dutela onartu zen azken batzarrean



Andoni Otegi herriko presoak egiten ari zen itxialdiarekin bat egiteko egin zuten kontzentrazioa. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Leaburu-Txaraman egindako azken Udal osoko bilkuran bertaratutako ahobatasunez bi mozio onartu ziren; euskal presoak burutzen ari diren borrokaldiarekin bat egiten dutela bata eta AHTren aurka jarrera agertzen duena bestea.

*Estatus politikoaren alde, euskal presoak Euskal Herrira lelopean ondorengoak azal-*

zten dituen mozioa onartu dute: «Gatazkaren konponbidea, euskal herritar guztien hitza eta borondatearen errespetuak etorriko da. Hau gero eta herritar eta eragile gehiagoren ahotik entzuten ari garen argudioa da. Bide honetan, Euskal Herrian demokrazia eta bakera bidean pauso ausartak emateko garaia da, inoiz baino garrantzitsuagoa da munduan zehar eman diren prozesu politikoetan presoen kolektiboek

izan duten parte-hartze eta paper zuzena erreferentzian izatea. Hor dugu Irlandako kasua, Hego Afrikakoa eta beste hainbat. Ez da gatazkarik konponbidean jarri kolektibo hauen parte hartzerik gabe. Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatzean datza gatazkaren konponbidea», gehitzen du.

Honen aurrean Kimu Berriak herri plataformak aurkezturiko puntu hauek onartu ziren Lea-

buru-Txaramako osoko udalbatzarrean: Batetik, Euskal Preso Politikoaren Kolektiboa, Euskal Herriaren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean zuzenean parte hartzeko duen eskubidea aldarrikatzen duela Udal honek.

Bestalde, Udal honek, parte-hartze hori behar den baldintzetan eman dadin, «isolamendu eta sakabanaketarekin» bukatu eta euskal presoek Euskal Herrian egoteko duten eskubidea bere egiten du.

Eta amaitzeko, martxan jarri den presoen borrokaldiarekin bat egiten du Udalak, eta borrokaldi hau babesteko antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.

## AHTri aurre egin

AHTren lanek «Euskal Herrian izan dezakeen eragin atzerazinen aurrean» Kimu Berriak herri plataformak aurkeztu zituen puntu hauek onartu ziren: Udal honek, Abiadura Handiko Trenaren proiektua gelditzea eskatzen du, «gure herriarentzat garapen politiko, ekonomiko eta sozialaren ordez, kontaezin adinako kalteak ekarriko dituelako, gutxi batzuen mesedeetan».

Bestalde, «behingoz, Euskal Herria osoko ikusmirarekin azpiegiturari buruzko eztabaida politiko eta sozial bat hasteko premia aldarrikatu eta bultzatu nahi du.

AHTren moratoria eskatzen dio Udalak Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari, eta amaitzeko, AHT gelditzeko antolatzen diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten die Udalak herritarrei.

IBARRA ▶

## Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa

Bihar 18:00etan Bilbon Euskal Herriak Konstituzio Honi Ez! lelopean egingo den manifestaziora joateko autobusa irteango da Ibarrik. Benito Izagirre kultur etxearen aurretik aterako da 16:00etan.

LIZARTZA ▶

## Autobusa aterako da bihar Bilboko manifestaziorako

Bihar 15:30ean aterako da aparkalekutik Bilbon Euskal Herriak konstituzio honi ez! lelopean egingo den manifestaziora joateko.

IBARRA ▶

## Partida garrantzitsua bihar Ibarrik

Pasa den larunbatean Logroñon Ibarra areto futbol taldeak ondo jokatu arren 3-2 galdu zuen. Puntuak lortzeko partida garrantzitsua jokatu du bihar Ibarrik 18:30ean Ibarrik Belabieta kiroldegian. Hain zuzen ere, Arnedoko (Errioxa) Virgen de Vico taldea izango du aurrez aurre. Talde hau zazpigarren da sailkapenean eta orain hila-bete jaitziera postuetan bazegoen ere goruntz egin du azken partidak irabazi eta gero. Ezin esan kalitateko taldea denik, baina indarrak bereizten du, batez ere.

## iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

### ETXEBIZITZAK

**Aia.** Eraikuntza berriko apartamentua. 2 logela. Garajearekin. Naturaren erdian. 35.000.000 pezeta.

**Alegia.** Duplex eraikuntza berriak. 2 logela. Mandio. 669 87 19 09.

**Amaroz.** 80 m<sup>2</sup>-ko lurra. 3 logela. Mandio. 669 87 19 09.

**Anoeta.** Bizitzera sartzeko. Bi logela, erabat berriua. 34.000.000 pezeta.

**Andoain.** 80 m<sup>2</sup>. 2 logela, gazteentzat aproposa. Erabat berriua. 39.000.000 pta.

**Berrobi.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, sukaldia, igogailua, 12 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta garajea marrarekin. 29.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** 90 m<sup>2</sup>. 41.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Hernani.** Eraikuntza handia. 3 logela hari musikalarerakin. 80 m<sup>2</sup> + 40 m<sup>2</sup> jardinarekin. Etxe ederra. 57.000.000.

**Ibarra.** Maestro Guridi. Bizitzera sartzeko, 3 logela, eguzkitsua. Kalefazioa. 33.500.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Lasarte.** 70 m<sup>2</sup>. 3 logela. Erabat berriua. Berogailua. Dena kanpoaldera. Garajea. 40.500.000 pta.

**Tolosa.** Santa Klaran 111 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m<sup>2</sup>-koa, igogailuarekin. 37.000.000 pta.

**Tolosa.** Foru etorbidean, leku hoberean, erabat kanpoaldera, atikoa, 85

m<sup>2</sup> + 50 m<sup>2</sup>-ko terraza. Ikuspegi ederak. Sukaldea, 3 gela, egongela, bainua, trasteroa, berogailua eta igogailuarekin. 64.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Iurre auzoan. 33 m<sup>2</sup>-ko txokoa, 10.000.000 pta, tartelantana. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalea. Apartamentua bizitzera sartzeko. 1 eta 2 logela. Mandio. 669 87 19 09

**Tolosa.** Zumalakarregi. 3 logela, igogailua, berogailua. 45.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Araba etorbidea. 5 logela. 100 m<sup>2</sup>. Igogailua. Kalefazioa. Garajea marrarekin. Trasteroa 13 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua erabat. Dena kanpoaldera.

**Tolosa.** San Esteban. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela. Berogailua, eguzkitsua. 35.000.000 pta.

**Tolosa.** Larramendi. 75m<sup>2</sup>. Igogailua.

2 gela, armario enpotratua. Kalefazioa. Ganbara 12 m<sup>2</sup>. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Gudari kalea. Terraza. Berriua.

**Tolosaldea.** Etxebizitza berriak. 2 logela. Garajea marrarekin. 39.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** 102 m<sup>2</sup>. egoera ezin hobean, garajea, 3 logela. Kanpoaldera. Eraikuntza ederra eta berriak. Mandio. 669 87 19 09.

**Zaldibia.** 40 m<sup>2</sup>. Kanpoaldera. 26.000.000. Mandio. 669 87 19 09.

**Zizurkil.** 3 logela kanpokalde. Balkoi itxia, ganbara.

### NEGOZIOAK

**Ileapaindegia.** Ileapaindegia alokatzeko. 90 m<sup>2</sup>. Gutziz diseinatu. Mandio. 669 87 19 09.

### LOKALAK

**Belauntza.** Pabiloia 250 m<sup>2</sup>. 32.500.000 pta.

Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Leidor zinema inguruan garaje marra alokatuaran. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Errementari kalean lokal komertziala alokatuaran. 70.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Lokalak salgai, Laskorain kalean, Rondilla kalean, Errementari kalean, Triangulean eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Lokal berria, 35 m<sup>2</sup>, sukaldetz hornitua, terrazarekin. 16.000.000 pta. 669 87 19 09.

EUSKARA ▶

# Euskararen ofizialtasuna Nafarroa osorako eskatuz

Gaur iluntzean, Oinarriak-ek eta herrian bertako Euskara Batzordeak deituta, elkarretaratzea egingen dute Leitzako plazan, Nafarroako hainbat herritan bezala

JAIONE ASTIBIA

Gaur iluntzean, 20:00etan zehazki, Leitzako plazan elkarretaratzea egingen dute *Euskara ofiziala Nafarroa osoan* lemapean, Leitzako Euskara batzordeak eta Oinarriak-ek deituta.

Kontzentrazio hau, euskararen ofizialtasuna Nafarroa osorako aldarrikatuz Oinarriak egiten ari den kanpainaren harira dator eta Leitzan bezala, Nafarroako beste herri batzuetan ere egin behar dituzte elkarretaratzeak gaurkoan eskaera horri bulkada emateko: Iruñean, Atarrabian, Burlatan, Berriozarren, Lesakan eta Lekunberrin zehazki, hiriburuko 19:00etan egingen badute ere, gainerako guztietan Leitzan egingen duten ordu berean elkartuko dira, hots, 20:00etan puntuan.

Ekimen hau, orokorrean euskarari dagokionez Nafarroako Gobernuak aurkeztu eta Legebiltzarrak onartu zituen aurrekontu erabat murriztaileen ondorioz jarri zuen abian Oinarriak-ek. Gogora ekarri, aurrekontu hailetan Nafarroan

euskarari dagozkion arloetako diru-partidetan murrizketa nabariak egin zituzten, euskaltegiak direla, komunikabide eskaldunak direla, euskara zerbitzuak direla... orohar euskara sustatzeko eta normalizatzeko herrialdean lanean diharduten elkarte, erakunde eta zerbitzuak baliabiderik eta ia laguntza ekonomikorik gabe utzea erabaki zuten.

Honen aurrean, hainbat elkartek, horien artean Oinarriak-ek ere, bere desadostasuna agertu zuten eta bide batez, Hizkuntz Politikaz egin zen eztabaidan ere, «euskararen ofizialtasuna, herrialde osora hedatzea, euskararen normalizaziorako beharrezko urratsa», dela aldarrikatu zuten.

Kontutan hartu behar da, Nafarroa euskararen ofizialtasunari dagokionez, eta beti zerbitzu publikoei erreparatu, hiru eremutan banatuta dagoela: mendialdean ofiziala da, Iruñea aldean koofiziala, gazteleerarekin batera eta hegoaldean, ez-ofiziala. Horrela, nafar guztiek ez dituzte eskubide berak, non bizi den, edo nora joa-

ten den ikusita. Esate baterako, euskaraz bizi nahi duen Erriberako nafar batek, ezingo du halakorik egin, legez bera bizi den eremua ez-euskalduna —*no-vascofona* esaten dute agintariek— delako; edo euskaraz bizitzea erabaki duen Leitzaldeko herritar batek, Iruñeara joan eta, ez du inolako bermerik, han arreta euskaraz jasoko duenik. Bata zein bestearen hizkuntz eskubideak zapuztuta daude guztiz, euskararen ofizialtasunaren banaketa zelebre hori dela eta.

Ereduak eredu, beraz, euskara Nafarroan normalizatuko bada, eskubide osoko eta berdinezko hizkuntza izanen bada, eta bere hitzunez ere berme hori izanen badute, euskara Nafarroa osoan hizkuntz ofiziala izatea beharrezko dela nabarmentzen dute eta horixe aldarrikatuko dute gaurko elkarretaratzearekin Leitzan, besteak beste.

Aldarrikapen honekin berarekin, hilaren 26rako manifestazio deialdia eginga du Oinarriak-ek, Iruñean.

## Oinarriak-en mozioari bai

Ilbeltzaren 28an burutu zen batzarrean, Leitzako Udalak, euskararen ofizialtasunaren aldeko jarrera agertu zuen, Oinarriak-ek aurkeztu mozioa onartuz.

Egungo Hizkuntz Politikarekin euskararen normalizaziorik ezin lor daitekeela baieztatzen ondoren, «Nafarroako Gobernuaren Hizkuntz Politikaren gaineko balorazio ezkorra»,

egin zuen eta «beste era batekoa» behar dela izan adierazi, «euskara Nafarroako lurralde osoan ofiziala izatea ziurtatu behar» duena, zehaztuz.

Bide batez, hilaren 26rako Oinarriak-ek deitu manifestaldiaren «helburu eta aldarrikapenekin bat egin» zuten.

Erabaki hau ez zen aho batezkoa izan, UPN taldeak gaurko bozkatu baitzuen. ◀

LEITZA ▶ KULTURA

## ‘Collateral’ filmea botako dute asteberu honetako zinema saioetan

Inauterietako atsedenen ondoren, berriz ere proiektioei ekinen diete gaurtik aurrera

J. ASTIBIA

Gaur ostirala, 22:30ean, eta etzi igandea, 19:30ean, *Collateral* pelikula botako dute zineman. Honekin, berriz ere saioei ekinen diete, Inauterietan egin duten atsedendaldia eta gero, hila-bete honetarako jadanik prest duten karteldegirekin egingen ere, bertako arduradunak jakitera eman duenez.

Honetakoan, beraz, *Collateral* izenburupean, Michael Mann estatubatuarrek zuzendutako filme hau izanen da

ikusgai. Filme hau iaz estreinatu zuten eta hainbat saritarako izendapen mordoska jaso zituen. Bi orduko iraupena duen akziozko Thriller-a da. Tom Cruis (Vincent), Jamie Foxx (Max), Jada Pinkett Smith (Annie Farrell) eta besteak beste, Javier Bardem (Felix) ere parte hartu zuten aktore lanean.

Max, eskarmentu handiko taxi gidariari, Vincent heriotz-gile profesionala igotzen zaio bere taxi-autora eta gau osoan Los Angelesen barrena, bako-



Collateral filmeko kartela. HITZA

tzak bere «lanean» dihardu: bata gidari lanetan, deus ere ez dakiela edo ez, auskalo, eta bestea, epaiketa bateko hainbat lekuko («trabatik kentzen»).

Kritikariek akziozko pelikula entretenigarri modura sailkatutako pelikula da hau eta aktoreen lana ere ontzat ematen dute.

LEITZA ▶

## Gaur ‘Europar Konstituzio honi ez’ lemaz hitzaldia

J. ASTIBIA

Gaur iluntzean, 20:30etik aurrera, hitzaldia emanen dute udaletxeko lehendabiziko solairuko aretoan *Europar Konstituzio honi ez* lemarekin.

Hizlari lanetan, Patxi Urrutia ariko da eta hilaren 20an burutuko den erreferendumean, Europako Konstituzioarekiko Ezker Abertzaleak duen aurkako posizioa azaldu eta aldarrikatuko du, ezetza emateko arrazoiak mahai gainean jarri.

Antolatzaileek Leitzaldeko herritarrei bertan parte hartzeko dei egin diete.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03

**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Orendain.** Medikua: 65 55 95

**Orexa.** Medikua: 68 22 28

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amarozko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 68 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70

**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldikaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Olarreaga, J. M. J. Iraola

10 (Tolosa). 943 672 438

Larraia. Elbarren 95 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaidea.** 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzaldeko.** 687 41 01 18.

leitzaldeko@tolosaldeko-hitza.info

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 11, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kaltetzaletza, Adura, Abotzur, Alegia, Alkiza, Altxo, Ameritea, Anoaeta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Iruia, Larrain, Leizola, Lizartza, Oihenitz, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzuri, besteak beste. Leizaldekako Euzkara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaureritza. Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

9

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zailantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Aduna.** KZgunean segurtasuna ordenagailuan eta Microsoft Outlook bi orduko mintegiak. Tutorea 16:00etatik 20:00etara izango da KZgunean.

**Gaztelu.** Sahararren bizimodua azalduko dute bertan izandako herritarrek eta argazkiak erakutsiko dituzte Gazteluko kultur etxean 19:00etan.

**Ikaztegieta.** Martxoaren 5 eta 6rako Candanchura eskiatzera irteera antolatuta du Udalak. Izen-ematea udaletxean otsailaren 11 arte.

**Tolosa.** KZguneak Internet ikastaro hauek antolatuta ditu otsailaren 21etik 25era 9:00etatik 13:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea bertan.

**Tolosa.** Otsailaren 26-27rako Benasquera elurretara joateko autobusa antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak. Llanos del Hospital fondoko pista eta igandean Plan d'Estan proba herrikoian parte hartzeko aukera. Izen-ematea: 943 65 27 89 (asteleheneretik ostegunera, 19:30etik 20:30era).

**Tolosa.** Europako Konstituzioaren aurka larunbatean Bilbon egingo den manifestaziora autobusak antolatuta dituzte. Izen-ematea Raku eta Elurra tabernetan.

**Tolosa.** Geriatria (INEMek diruz lagunduta) eta zainketa kliniko ikastarok antolatuta dituzte Inmakulada ikastetxean doan. Informazioa: 943 67 36 29.

**Villabona.** Pikor taldeak *Zapaldu marra* antzezlan eskainiko du Gurean 22:30ean.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Jose Manuel Oiarzabal alegiarraren Himalayako argazkiak jubilatuaren tabernan.

**Tolosa.** Chiapaseko Txomin Txuekaren argazkiak Aranburu Jauregian: *Lurraren kolorea*.

**Tolosa.** Carmelo Ortiz de Elgea margolari gasteiztarren azken lanak Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Nekane Fernandez pintore tolosararren akrilikoak Sorron koadro dendan.

### KIROLAK

#### GAUR

##### Areto futbol

▶ Laskorain-Jostaldi Kirolak (1. Maila A. Berazubi 21:15)

▶ Euomar kafetegia-Cash Converters (1. Maila A. Zarautz Antoniano 21:00).

▶ Laskorain-Goierri (Neskak. Berazubi 22:15).

▶ Tinta Billabona-Idiazabal (Olaederra 20:45).

##### Esku pilota

(Gipuzkoako Elkarteak Artekoa)

▶ Gure Txeru-Behar Zana (Binaka. Kadeteen 1. maila. Getaria 19:00)

▶ Legazpi-Kuku (Binaka. Nagusien 3. maila. Legazpi 19:00).

▶ Kuku-Gazteleku (Binaka. Kadeteen 3. maila. Anoaeta 20:30)

▶ Elordi/Herrigintza-Andatza/Pagola 1 (Binaka. Kadeteen 1. maila. Ikaztegieta 21:00)

▶ Elordi/Herrigintza-Mundarros (Binaka. Jubenilen 2. maila. Ikaztegieta 21:00)

(Euskadiko Klubak Txapelketa)

▶ Joko Alai-Aurrera/Saiaz (Unai Aspe-Eneko Galarraga) (Sub 22. Zeanuri 20:00).

##### Pala

▶ Altzatarra-Behar Zana (Larruzko pilota. Nagusiak. Altxo 20:00).

▶ Ametsa 1-Ramunxo 1 (Gomazko pilota. Nagusiak. Irura 21:00).

##### Zesta punta

▶ Gazteleku 2- Beotibar 1 (Nagusiak. Arrate 20:15).



## Garziandia txapelketa

**TOLOSA** ▶ Peña Union elkarteak antolatutako Garziandia pilota txapelketak aurrera jarraitzen du eta bihar 10:15etik aurrera hiru partidu jokatu dira Beotibarren. O.ESKITXBEL

#### BIHAR

##### Areto futbol

▶ Ibarra-Virgen De Vico (1. Maila Nazionala A. Belabieta 18:30).

▶ Laskorain-Oslo Santurtzi (1. Nazionala B. Berazubi 19:00).

▶ Lauburu-Gazteleku (Belabieta 16:15).

▶ Transportes Lakunza-Intxaurren (Olaederra 18:30).

▶ Eskolapioak B-Zaldibi (1. maila A. Eskolapioak 15:30)

##### Esku pilota

▶ Gure Txeru-Aurrera/Saiaz (Xuban Pikabea-Garikoitz Galarraga) (Binaka. Nagusien 3. maila. Getaria 10:30).

▶ Behar zana-San Esteban (Binaka. Nagusien 2. maila. Amasa 21:15).

▶ Elordi/Herrigintza 1-Ikaskirola 2 (Binaka. Kadeteen 3. maila. Altxo 15:30).

▶ Elordi/Herrigintza 2-Ikaskirola 1 (Binaka. Kadeteen 3. maila. Altxoko pilotalekuan 15:30).

▶ Urnieta-Aurrera Saiaz (Mikel Lasar-Marco Montiel) (Binaka. Kadeteen 3. Maila. Urnieta 18:00).

▶ Aurrera/Saiaz-Hernani (Binaka. Jubenilen 1. maila. Beotibar 18:45).

(Euskadiko Klubak Txapelketa)

▶ Aurrera/Saiaz (Koldo Galarraga-Irurzun (Jubenilak. Beotibar 18:00).

▶ Igorre-Aurrera/Saiaz (Imanol Pastrain (Sub 22. Igorre 10:00).

(Udaberri Txapelketa)

▶ Aurrera/Saiaz (Axier Telleria-Ioseba Senperena)-San Esteban 2 (Jubenilen 1. maila. Beotibar 18:00).

(Garziandia Txapelketa.

Beotibar 10:15)

▶ Izagirre-Olaetxea (San Esteban)/Urmeneta-Aranalde (Añorga).

▶ Etxeberria-Arrieta (Bizkaia)/Renobales-Mujika (Aurrera).

▶ Alzugarrai-Mitxeo/Etxeberria II.a-Setien (Bizkaia).

##### Zesta-punta

▶ Donostia Jai Alai 2-Beotibar 2 (Nagusiak. Donostia Balda 12:30)

##### Xare

▶ Ametsa 2-Ametsa 3 (Irura 15:30).

▶ Ametsa 4-Ametsa 1 (Irura 15:30).

##### Saskibaloia

▶ Allerru Famipan-Aralar kirolak (Lezo Bekoerrotta 18:15).

### Futbola

▶ Tolosa-Elgoibar (Jubenilen Euskal Liga. Berazubi 16:30).

▶ Gure Txoko-Tolosa B (Lurraldekako 1. Maila Matxada-Bera 16:00).

▶ Danena-Usurbil (Lurraldekako 2. Maila. Igoera fasea. Elbarrena Zizurkil 16:30).

▶ Hondarribia-Intxurre (Lurraldekako 2. Maila. Igoera fasea. Hondartza 16:30).

▶ Urnieta-Tolosa (Jubenilen 2. Maila. Igoera fasea. Urnieta 11:45).

▶ Intxurre-Añorga (Jubenilen 1. Maila. 15:30. Elorri).

▶ Aloña Mendi-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. 10:30 Azkoagain).

▶ Tolosa-Peña Ath.Santurtzi (Kadeteen Euskal Liga. 18:30, Berazubi).

### Saskibaloia

▶ Aralar-Allerru (Senior Maila. Berazubi, 17:00).

### ETZI

#### Futbola.

▶ San Viator-Tolosa (Goren Maila. San Viator 12:15).

▶ Aretxabaleta-Tolosa (Ibarra-Aretxabaleta 16:30).

▶ Amaro-Lasarte Oria (Lurraldekako 2. Maila. Kopa. Elorri Alegia 10:00).

▶ Hernani-Billabona (Jubenilen 1. Maila. Zubipe Hernani 12:00).

▶ Añorga-Intxurre (Jubenilen 1. Maila. Rezola Añorga 11:30).

▶ Martutene-Danena (Jubenilen 2. Maila. Igoera fasea. Martutene 12:00).

▶ Aurrera-Huarte (Lurraldekako 2. Maila. Arkixkil Leitza 16:00).

### ZINEMA

**Leitza.** *Collateral* filma zineman gaur 22:30ean eta igandean 19:30ean.

**Tolosa.** *Closer* filma Leidor zineman 22:30ean.

## ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Zorionak Lia!

Atzo bete zituen urteak. Etxekoan partetik.

# HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!